

Gaur goiz berezi honetan, Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna ospatuko dugu, antigitanismo aurkako borrokaren, hausnarketaren eta batasunaren une bat.

Funtsezkoa da iragana ezagutzea, gure orainaren zergatia ulertzeko. Iragan horretan, Gipuzkoako Batzar Nagusiek ijitoen aurkako legeak eta jardunbideak bultzatu zituzten. Hala ere, gaur ikusten dugu eraldaketa esanguratsua, eta erakunde horiek berak bihurtu dira aliatu diskriminazioaren aurkako borrokan.

Horregatik eskatzen dizuegu gure gizartean dagoen antigitanismoaren aurkako borrokan jarraitzea.

1971ko, Rromaní munduko lehen kongresu izan zen eta gaur oroitu nai genuen, berdintasunaren eta aintzatespenaren aldeko gure borrokaren mugarrria. Halaber, orain dela 14 urte gutxi gorabehera Batzar Nagusietan Rafaela Romero presidenteak egindako ekitaldi ausarta gogoratu nahi dugu, Eusko Jaurlaritzaren Ijito Kontseiluaren ordezkariekin batera, José Ramón Jiménez eta "Manuel osaba" ijito kausarekin konprometitutako presidente ohiekin batera, Batzar Nagusian José Ramónek ijitoen bandera lehen aldiz altxa baitzuen, itxaropen- eta batasun-keinu bat.

Egun hartan, antigitanismo aurkako borrokan lankidetza garrantzitsuaren hasiera markatu zuen. Egun hartan Ijito Kontseiluak senidetze erresistente eta solidario baten hazia erein zuen.

Rafaelaren hitz profetikoak entzun ziren orduan, eta gaur ere entzuten dira:
"Gipuzkoako gizarteak ez du bizikidetza-arazorik nahi, eta ez dugu nahi politikariak beren onerako arazoak sortzea ere. Ez ijito ez direnen artean, ez euskaldunen artean."

Urte hauetan aurrerapenak izan dira, bai, baina baita oraindik aldatu ez diren gauzak ere.

Horren erakusgarri dira ijito-herriaren buruz Euskadin egindako azterlanak. Ikuspegi adibide gisa.

Egun honetan, hemen gaudenok justiziarekin eta berdintasunarekin dugun konpromisoa onartzen dugu. Eta borrokan jarraituko dugula, mugak eta aurreiritziak gainditzeko dituen kausa batean elkartuta. Zubiak eraikitzen jarraitu behar dugu.

Guztionezko errespetuzko, duintasunezko eta erabateko integraziozko etorkizunaren alde!

Ijitoek eta ez-ijitoek borroka dezagun, etorkizuneko belaunaldientzat mundu inklusiboagoa, bidezkoagoa eta errukitsuagoa eraikitzeko.

Elkarrekin, nahi dugun benetako harmonia eta bizikidetza lor ditzakegu! Ijitoek herri guztien arteko eskubide-berdintasunaren eta ermandadearen aldeko ahotsa goratuko dugu beti!